

SANTAMASAK 24



A
R
a
R
a
b
e
U
S
n
P
A
d
G
T
u
T
a
R
L
a
k
R
2
M
2
R
O
U
A
O
N
E
Z



Bi mila ta hogetalau,
gerturatu ta hamalau...
Aurrera gindoiazela
eta atzera doia hau.

Jaustiar zenbat baserri,
euri denporan aterri,
aurrera gindoiezela
ta aurten be zaharrak berri.

Sikutiak, hurakanak,
txingor, euri eta DANAk...
Urte zahar eta urte txar
bixak dauko badoianak.

Mugak pertsonen hilerri,
biderik ezin igerrri;
aurrera gindoiezela
ta aurten be zaharrak berri.

Trump ta Elon Musken gola,
mundu honen parabola,
pasauta euela baina
aurten berriro be hola.

Arnak bando sionistan,
sarraski bat danon bistan,
urtia aurrera baina
genozidak telebistan.

Ospitxale ta eskola,
bonbak, misilak, odola...
Aurrera gindoiezela
baina barriro be hola.

Horrenbeste euskal herri,
euskaldunontzat atzerri,
aurrera gindoiezela
ta aurten be zaharrak berri.

Matxote eta matxito
dan-danak sistematiko...
Berriro be hola baina
ez da izengo betiko.

Sarduixak ta errejonak,
hau ez da: "txarrak ta onak";
bakotxak bere sailien
badau ze landu, gizonak.

Aldatu arren garaixak,
bete kale eta mahaixak...
Herritxik, herrixan alde,
gora gu ta gora jaixak!

Ez die ume-jolasak,
domekako jende-masak...
Hiru berba zuen alde:

ONDO PASAU SANTAMASAK!



Arrasateko Hainbat

KULTUR TALDE

Arrasateko **UDALA**

SANTAMAS KOMISIÑUA



ABENDUAK 14

Z a p a t u a

11:00-19:00

Seber Altube plazan **gabonetako artisautza azoka Eskuarlean Artisau Kolektiboaren** eskutik.

11:00

Kulturolan **Pandero tailerra**. Herritar guztiei zabaldua, adin guztietakoei.

11:00

Seber Altubeko karpan **“ZENTZUAK PIZTUZ” tailerra, Ekoudalatxen** eskutik. Helduentzat zuzendua. Plaza mugatuak.

11:30-13:30

Biteri plazan, **jostailu truke azoka, Txatxilipurdi** elkartearen eskutik.

13:00

Herriko Plazan, **borobileko dantza parte-hartzaileak Lore Gazteak** eta **Txikitxu-Arrostitz** taldeen laguntzarekin. Euria bada, Kulturolako aterpean. Ostean, **Olentzeroren gutun banaketa** Lamia eta Galtzagorriekin.

19:00

Juan Arzamendi Musika Etxeko auditoriumean **kontzertua: Euskadi Brass**.

20:00

San Frantzisko Elizan **kontzertua Goikobalu** eta **Goikobalu txikiren** eskutik.

ABENDUAK 15

D o m e k a

11:00-14:30

Seber Altube plazan, **gabonetako artisautza azoka, Eskuarlean Artisau Kolektiboaren** eskutik.

11:00

Seber Altubeko karpan, **“ZIANOTIPIA” tailerra, Miau Estudioaren** eskutik. Herritar guztiei zuzendua. Plaza mugatuak.

11:00

Herriko kaleetan zehar, **haurren Santamas krossa**.

12:30

Herriko kaleetan zehar, **kuadrilen arteko Santamas krossa.**

19:30

Amaia antzokian antzerkia: **“EMAKUME BATEN BORROKA ETA METAMORFOSIA”**, Tanttaka taldearen eskutik, antzezle hauen partaidetzarekin: **Eneko Sagardoy eta Eva Trancón / Vito Rogado.**

ABENDUAK 18

E g u a z t e n a

20:15

Gala Lirikoa, Amaia antzokian. **Ozenki elkarteak** antolatua.

ABENDUAK 21

Z a p a t u a

11:00

Musakolako kiroldegian **Santamas padel txapelketako finalak.**

11:00-19:00

Seber Altube plazan **gabonetako artisautza azoka**, Eskuarlean **Artisau Kolektiboaren** eskutik.

12:30

Kondekuan, **artzai txakur erakustaldia**, **GIATE Gipuzkoako Artzain Txakur Elkartearekin** lankidetzan eta **Jose Ramon García artzainak** gidatuta.

13:00

Portaloitik hasita eta herriko kaleetan zehar, **Kantu Gira**, **Portaloi** elkartearen eskutik. Parte-hartze irekia.

18:00


Biterin, **Santamasetako dantzaldia**, herriko musikariekin.

18:30

Etxafleroen jaurtiketa.

18:30

Biteri plazatik hasita, **Arrasateko Erraldoi eta Kilikien konpartsaren kalejira.**



19:00

Herriko Plazan, **“GURUTZE”** txerriaren aurkezpena.

19:30

Juan Arzamendi Musika Etxeko auditoriumean **Bertsosai**oa. Bertsolariak:

Alaia Martin, Ane Zuazubiskar, Aitor Tatiegi eta Andoni Egaña.

Gai-jartzailea: **Olatz Zuazubiskar.**

20:00 eta 23:00

Herriko Plazan, **dantzaldia KAIXO** taldearekin.

22:00

Herriko Plazan **zezen suzkoa.**

22:00

Gaztetxean, **ZENTZU OKERRA** eta **INGUMA** taldeen **kontzertuak.**

ABENDUAK 22

D o m e k a

9:00

Etxafleroen jaurtiketa.

9:30

Herriko kaleetan zehar, **Udalaxpe** txistulari taldearekin **diana.**

10:00

Portaloian, **“GURUTZE”** txerriaren aurkezpena.

10:00

Jose M^a Arizmendiarrjeta plazan, **ganadu feria.**

10:00

Seber Altube plazan, **fruta, barazki eta herriko saltokien azoka.**

10:00

Biteri plazan, **Euskal Herriko produktu gastronomikoen salmenta.**

10:00

Herriko Plazan, **taloen salmenta.**

10:30

Jokin Zaitegi plazan, **artisau langintzen jarduera feria.**

11:00 eta 13:00

Jose M^a Arizmendiarieta plazan, **artile mozqueta erakustaldia.**

Mikel Velascoren eskutik.

11:00

Portaloitik hasita eta herriko kaleetan zehar, **Trikikunen** eskutik **kalejira.**

11:00:

Herriko kaleetan zehar **albokariak.**

11:30

Herriko kaleetan zehar, **kalejira: Arrostaitz eta Lore Gazteak** dantza taldeak, **Arrasateko trikitilariak, Udalaxpe txistulari taldea eta Arrasateko gaiteroak.**

11:30

Herriko kaleetan zehar, **Iturengo Joaldunak.**

11:30

Herriko kaleetan zehar, **Incansables txaranga.**

11:30

Herriko Plazan, **Arrasateko trikitilarien** saioa.

12:10

Herriko Plazan, **Lore Gazteak** dantza taldearen saioa.

12:30

Zaldibar frontoian, **herri kirolak:** bi bikote mixtoren arteko norgeihagoka. Parte hartzaileak: **Karmele Gisasola eta Oier Kañamares vs Uxue Anzorregi eta Julen Kañamares.** Probak: Harri jasotzea, 5 metroko altueran aizkorarekin ebaki bertikala, txingak, aizkorarekin ebaki horizontala eta korrika.

12:50

Herriko Plazan, **Arrostaitz** dantza taldearen saioa.

13:30

Herriko Plazan, **Trikikun.**

13:45

Herriko Plazan, Txerri dantza herrikoa.

14:45

Musakolako kiroldegian, **herri bazkaria.** *Doako autobus zerbitzua egongo da 14:00-14:45 Maalako biribilgunetik joateko eta 17:30-19:00 Musakolatik itzultzeko.*

Bazkalostean, **DJ EROren** eskutik **dantzaldia.**

17:30

Uarkape Udal **pilotalekuan profesional mailako pilota partidak**. Eskuz binakako txapelketa. **Altuna III - Aranguren vs Artola - Mariezkurrena II**.
Sarrerak: aurrez 20 euro; lehiatilan 25 euro.
Sarrerak salgai: Monte Taberna eta Buenuena Taberna.

19:00

Arbolapetatik, Seber Altube eta Herriko Plazaraino, **Batzen dantza herrikoia**.

19:30

Herriko Plazan, **Txerri dantza herrikoia**.

19:30

Herriko Plazan, **Larrain dantza herrikoia**,
Arrasateko gaiteroen eta Garinbanden
musikarekin.

20:00

Herriko Plazan, **Txerri zozketa**.

20:00 eta 23:00

Herriko Plazan, **dantzaldia MUXUTRUK**
taldearekin.

00:00

Gaztetxean, **SALDA BADAGO DJ**aren
eskutik **dantzaldia**.

ABENDUAK 23

A s t e l e h e n a

11:00-19:00:


Seber Altube plazan **gabonetako artisautza azoka**, Eskuarlean
Artisau Kolektiboaren eskutik.

11:00

Seber Altubeko karpan, **“ZERAMIKA” tailerra**, Lokatz aztiaren eskutik.
Herritar guztiei eskeinia.

17:30

Kulturateko areto nagusian, **“LAMIEKIN JOLASEAN” ipuin kontaketa**,
Apaxi kontalariaren eskutik.



19:30

Amaia antzokian Kontzertua: **Olatz Salvador.**

ABENDUAK 24

M a r t i t z e n a

11:20

Txoronpiak, Txoronpiok, Lamiak eta Galtzagorriek Munar, Uribe Auzoa, San Andres, Aprendices plaza, Zigarrola eta Santa Teresa auzoetan jasoko dituzte Olentzeroren gutunak.

13:30

Herriko Plazan, Txoronpiak, Txoronpiok, Lamiak eta Galtzagorriek Olentzeroren gutunak jasoko dituzte. Eguraldi txarra eginez gero, Kulturetan.

18:30

Monterronen, Olentzeroren etorrera. Ibilbidea; Otalora, Maalako errebala, Erdiko Kale eta Herriko Plaza.

19:00

Herriko Plazan, **Olentzeroren agurra.**

19:00etatik aurrera

Herriko kaleetan zehar, **Goikobalu** abesbatzaren **gabonetako kantaldia.**

ABENDUAK 31

M a r t i t z e n a

13:00

Amaia antzokian, **Arrasate Musikaleko Bandaren kontzertua.**

18:30

Herriko kaleetan zehar, **Txorbela Otxotearen emanaldia.**

MAKETAZIOA eta ILUSTRAZIOAK



www.desegin.com



[ilustrador_desegin](https://www.instagram.com/ilustrador_desegin)



[desegin](https://www.facebook.com/desegin)

Gallo

